


ADUNAKO

TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA 2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK



Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: ELKARREKIN 21



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiro) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.


24 urte beranduago, esanguratsua da Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:



Aduna, Alkiza, Amezketeta, Andoain, Arama, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena (eskualdeko ekintza-plana), Donostia, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza-plana?



Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batez bestekoarekin alderatuz, **altuagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikaturik** dauden eragile-kopurua ere lurraldeko batez bestekoa baino **altuagoa** da.



Nolako izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?


%34a ezarri da bere 3. urtean

%10eko hazkundera 2014 -2015 epealdian

Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **desiragarria** den **helburuko** balioarekiko, **baxuagoa** da.

Hala ere, Adunako Ekintza-planaren garapen-maila lurraldeko **batez besteko balioaren gainera kokatzen da, zertxobait.**




Nolakoa da ekintzen ezarpen-maila?

Adierazgarria da 2014 urtetik 2015 urtera aurreratuta zeuden ekintzek izan duten bilakaera. Izan ere, 2014ean soilik %11a suposatzen zuten bitartean, 2015ean ekintza guztien %40a izatera igaro baitira.

Bestalde, Ekintza-planaren ekintzen ia %60a hasi gabe edo hasita zegoen 2015ean.

TEPren ezarpen-maila



■ Hasteko ■ Hasita ■ Aurreratuta ■ Amaitzen ■ Amaituta

2015ean amaitzear zeuden ekintza adierazgarri batzuk:

2.3.1 Autoaren erabilera murrizteko garraio publikoari lotutako alternatiba ezberdinak ezartzea (tarifa-politika eraginkorrak, ordutegi erakargarriak, etab.)

4.3.5. Gaur egungo birziklapen-eredua hobetu eta birziklapen-maila handitzeko ekimenak gauzatu, herritarrei nahiz enpresei zuzenduta

10.3.2 Etxebizitza hutsen kopurua murrizteko neurri eraginkorrak ezarri

10.5.1 Aisialdi-eskaintza lantzea, herritar guztientzat erakargarria izan dadin

2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

1.2.1 Hirigintza-hazkunde kontrolatu bat bermatuko duten lurzorua lortzen jarraitu


8.1.1 Berreskuratutako zonalde zehatzetan nekarizaritzarako lurrak bilatu

8.1.3 Herri-baratzak ezartzeko pausoak eman

4.1.1 Uraren aurrezpen-neurriak ezartzea, sektore ezberdinetan

9.2.4 Herriko aktibitateetan emakumeen parte-hartzea indartu

Ildo estrategikoen araberako ezarpen-maila



2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

Arriskuen prebentzian sakontzeko eta jarduera ekonomiko arduratsuak bultzatzeko gai den udal politikak bultzatzea: %25eko ezarpen-maila lortu du

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Arrisku mota ezberdinen identifikazioa gauzatu eta horien aurreko udal jokabidea definitu
- Klima-aldaketak Adunan sor ditzakeen arriskuei aurre egiteko eta horietara egokitzeko jarduerekin bat egin
- Udal nahiz enpresen jardueran ingurumen aldagaia eraginkorki txertatu

Herritarren oinarrizko beharrak asetzeko gai den hiri-eredu orekatu baten aldeko udal-kudeaketa: %28ko garapen-maila lortu du.

Honako helburu zehatzez osatuta dago:

- Nekazaritza jardueraren iraunkortasuna bermatzera zuzendutako lurzoruen erreserba eta kudeaketa aurrera eraman
- Adunaren berezko izaera aintzat hartzen duen hirigintza eredua bultzatu, hazkundera kontrolatuz

Partaidetza TA21en baitan

PARTE-HARTZE BIDE
NAGUSIA **GAIKAKO**
HERRI-BATZARRAK
DIRA

LANDU DIREN GAI
NAGUSIAK:
AURREKONTU
PARTE-
HARTZAILEAK,
AGENDA 21EN
PLANA, GARRAIO
PUBLIKOA

PARTE HARTZEN
DUTEN ERAGILEAK:
HERRITARRAK,
ARDURADUN
POLITIKOAK,
TEKNIKARIAK.

AGENDA 21EN **2**
PARTAIDETZA-
BILERA

18 PARTE-
HARTZAILE: **9**
EMAKUME/
9 GIZON

Informazio gehiagorako ebaluazio-txosten osoa kontsulta dezakezu (www.aduna.eus web gunean eskuragarri)



harremanetarako

Bilatu...



UDALA ▾ ZURE ZERBITZURA ▾ HERRIA ▾ AKTUALITATEA ▾ HARREMANETARAKO ▾ KONTRATZAILEAREN PROFILA ▾ ADUNA IREKIA ▾



Agenda

13
ABE

Jubilatuen irteera Zumarragako perira

Santa Luzia eguna ospatzeko Zumarragako feriara joateko irteera antolatu dugu. Goizean, ferian bueltatxo bat emango dugu eta arratsaldea libre

Mapa interaktiboa

Garraioa

Zerbitzu telematikoak

Harremanetarako